



Zaborra eta pandemia, dena bat

Axut! eta Artedrama konpainiek 'Hondamendia' antzezlanaren emanaldia egin dute Manuel Lekuona Kultur Etxean / 7

TXINTXARRI

Txikitatik datorkion desira

Adin nagusitasunera heldu bezain laster parte hartu du Aroa Sancho Palomares herritarrek Miss Grand Euskadi txapelketan / 6

Hauteskunde programa lasarteoriatarrekin batera prestatu nahi du PSE-EEK, parte hartze prozesu baten bidez / 2

Azken Ostiralak, irudi berria eta asmo bera: urteko aurreneko elkarretaratzean tortura landu dute / 3

Izan lñurri egitasmoak aurtengo Argia sarietako bat irabazi du, '(Min)bizi' podcastagatik / 4

Hilaren 6an hasiko da aurtengo CIMASUB Itsaspeko Zinema Zikloa. 13 eta 20an ere izango dira saioak / 5

Kadete Errendimendu taldeak puntu garrantzitsuak lortu ditu Gipuzkoako txapelketako lehia / 10

Buruntzaldea IKTKo igerilariak markak ondu eta gutxieneko berria lortu dute Alebin Teknikazio Sarian / 11

MERKEALDIA

2MÓ 79€

BETAURREKO GRADUATU
(LEHEN 99€)

+

UKIPEN LENTEAK OPARI



R.P.S. 91/20

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

multiópticas
kalitatea - konfiantza - diseinua

www.multiópticas.com   

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023



Programa herritarrekin batera osatu nahi dute

Lasarte-Oriako PSE-EEK parte hartze prozesu bat abiatuko du, 2023-2027 legealdirako hauteskunde programa lasarteoriarrekin batera prestatzeko. Eskuorri bat banatuko du etxeetan, eta karpa bat jarriko du auzoz auzo, larunbatetan, martxo amaierara arte

Txintxarri

Alderdi sozialistaren alkategai Agustin Valdiviak eta idazkari nagusi Iñaki Mugikak eman dute prozesuaren berri, Froilan Elespe Herriko Etxean. Azpimarratu dute berriz ere bozak irabaziz gero, hauteskunde programan jasoko dituzten konpromisoak udal gobernuarenak ere izango direla. Arestian esan bezala, eskuorri bat banatuko dute herritarren etxeetan. Parte hartu nahi dutenek bertan idatzu beharko dituzte proposamenak, eta Correos-en postontzira bota. Lasarteoriarrek beste bide batzuk ere izango dituzte parte hartzeko: 943-37 28 69 telefono zenbakira deitzea, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara; mezu elektronikoa bidaltzea socialistaslasarteoria@outlook.com helbidera; edo formulario bat betetzea www.socialistaslasarteoria.com webgunean.

Lasarte-Oriako PSE-EEren ordezkari horiek prentsa agerraldia baliatu dute amaitzear den legealdiaren balantzea



Ezker-eskuin, Agustin Valdivia eta Iñaki Mugica. TXINTXARRI

egiteko. "193 konpromiso hartu genituen, eta horien %86 bete ditugu, oraingoz. Horrek garbi erakusten du hauteskunde programak ez ditugula bozkak irabazteko prestatzen, herria hobetzeko baizik". Hemendik eta maiatzera arte portzentaje hori igotzen saiatuko direla aurreratu du Valdiviak. 2015-2019 legealdikoa %90ekoa izan zela zehaztu du.

'Auzoz auzo' karpa

- **Hilak 4:** Zabaleta.
- **Hilak 11:** Zatarain.
- **Hilak 25:** Basaundi-Oria.
- **Martxoak 4:** Arranbide-Oztaran.
- **Martxoak 11:** Atsokabar.
- **Martxoak 18:** erdigunea.
- **Martxoak 25:** Zumaburu.
- **Martxoak 26:** Sasoeta.

TEK komunitateari buruzko informazio guneak jarriko dituzte

Hilaren 6tik hasi eta martxoaren 5era arte, bulego mugikor bat herrian barrena ibiliko da, goizez zein arratsaldez

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak ezagutarazi du informazio guneak jarriko dituztela Lasarte-Orian zehar, herritarrek Tokiko Energia Komunitateari (TEK) buruzko informazioa jaso eta izena emateko

aukera izan dezaten. Zehazki, bulego mugikor bat izango da: hilaren 6tik hasi eta martxoaren 5era arte zenbait eremutan egongo da, goizez nahiz arratsaldez, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Udalak bizilagunei

gomendatu die elektrizitatearen faktura emateko. Edozein zalantza izanez gero, 946-85 63 12 telefono zenbakira deitzeko edo info@teklasarte-oria.eus helbide elektronikora idazteko eskatu die. Horrez gain, www.teklasarte-oria.eus atari digitala kontsulta dezakete interesa dutenek.

Udalaren iritziz, egitasmoak "onura nabarmenak" ekarriko dizkie herritarrei, argindarragatik ordaindu beharrekoa "%25 merkeago" izatera irits daitekeelako TEKari esker.



Lasarte-Donostia bidegorriaren zati bat. TXINTXARRI

Konponketa lanak egingo dituzte Lasarte-Donostia bidegorrian

Donostiako Añorga auzo pareko mendi hegalean aurrera eramango dituzte obrak, apiriletik hasi eta uztaiera

Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun sailak jakinarazi du 1.431.000 euro inbertituko dituela bere jabetzakoak diren bidegorrietako bi hobetzeko. Partida handiena Lasarte-Donostia tartera bideratuko dute, 863.199 euro, eta beste 567.916 euro Eibar eta Maltzaga arteko bidera. Departamentu horretako buru Rafaela Romerok 2023rako aurrekontuen aurkezpen agerraldian adierazi duenez, lanen helburua izango da "erabiltzaileen segurtasun eta gozamen baldintzak hobetzea".

Lasarte-Oria eta Donostia lotzen dituen zatiko obrak Añorga auzoaren parean egingo dituztela aurreratu du Romerok. Zehazki, mendi hegalean esku hartuko dute, egonkortu eta indartzeko. "Horrela, segurtasun handiagoa duen azpiegitura bat

eskainiko diegu erabiltzaileei". Batez ere, etorkizunean gerta daitezkeen lur jausiengatik daude arduratuta; horiek saihesteko lanak aurrera eramango dituzte tarte horretan. "Eremu horretan egin beharreko moldaketak konplexuagoak direnez, 863.199 euro bideratzea adostu dugu", zehaztu du Romerok. Ezagutarazi du obrak apirilean hasiko direla, eta hiru hilabete inguru irautea aurreikusten dutela. Hortaz, uztaierako amaituta egongo direla espero du Mugikortasun diputatuak.

Eibar eta Maltzaga artean dagoen bidegorri zatian, berriz, argiztapena hobetzeko lanak aurrera eramango dituztela zehaztu du Romerok, "Elgoibartik gertu dagoen tartean, batez ere". Obra horiek ere apirilean hasiko dira; abuzturako prest izatea aurreikusi du diputatuak.

Bulego mugikorra, noiz eta non?

- **Hilaren 6tik 10era:** Antonio Mercero gunean. Hilaren 6an, 8an eta 10ean, goizez; eta hilaren 7an eta 9an, arratsaldez.
 - **Hilaren 13tik 17ra:** goizez, Gaztelekuan, hilaren 14an, 16an eta 17an; eta arratsaldez, Zabaletako auzo elkartean, hilaren 13an eta 15ean.
 - **Hilaren 20tik 24ra:** Gaztelekuan. Hilaren 21ean, 23an eta 24an, goizez; eta hilaren 20an eta 22an, arratsaldez.
 - **Hilaren 27tik martxoaren 3ra:** goizez, Basaundiko auzo elkartean, martxoaren 1ean eta 3an; eta arratsaldez, Antonio Mercero gunean, hilaren 28an eta martxoaren 2an.
- Ordutegiak.** Goizez: 10:00-14:00. Arratsaldez: 16:00-20:00.

Azken Ostiralak, irudi berria eta asmo bera

Urteko lehen elkarretaratzea egin dute Lasarte-Oriako Sarek eta Etxeratek, Elizatze plazan. Herri mugimendiak abiatu duen aro berriko lehen mobilizazioa izan da: presoak Euskal Herriratzeko xedea beteta, helburua etxeratzea da orain. 50 bat lagun elkartu dira

Txintxarri

Urtarrilaren 7an Bilbon egindako manifestaziori buruzko hausnarketa partekatuz ekin zioten mobilizazioari. Kalean milaka lagunek bat egin zuten deialdiarekin eta horrek erakusten du, Etxerat eta Sareren iritziz, "preso, erbesteratu eta deportatuen etxerako bidea zeharkatzeko unea iritsi dela eta herri mobilizazioa, berriz ere, ezinbestekoa izango dela". Bultzada horregatik eskerrak eman zizkieten parte hartu zutenei, babesa eman baitzioten urte luzez aldarrikatzen ari direnari, alegia, "salbuespenen neurrien amaiera; eta indarkeriaren biktima guztiekiko errespetua eta tratamendu bera, biktima guztientzat".

Nabarmendu zuten, ez dira zigorgabetasunaz ari, presoek eskubideak defendatzeaz, baizik. "Lautik ia hiruk bete dute hirugarren gradura proposatzeko legediak eskatzen duen espetxealdia. Hamazazpi presok gaixotasun larri edo sendaezinak pairatzen dituzte. 70 presok hogeitau urte baino gehiago daramatzate espetxean, horietako batzuek 30 urte baino gehiago". Etxerako bidea legeak dioenaren arabera gauza dadin, lanean jarraitu behar dela berretsi zuten. "Geziek erakutsi diguten bideari jarraikiz,



Elizatze plazatik abiatu ziren manifestariak. TXINTXARRI

Etxera bidea gertu mezua egia bihurtzen hasteko unea da".

Tortura hizpide

Kale Nagusira irten, eta Okendora arteko ibilbidea osatuta, udaletxeko arkupeetan aterpe hartu dute partaideek. Otsailaren 13an Torturaren Aurkako Eguna da, Joxe Arregi torturapean hil zutela 42 urte beteko baitira; eta plazan horri buruz aritu dira. Zer den, "giza eskubideen urraketan tortura latzenetakoa izango da seguru, herritarri oinaze fisikoa zein psikikoa intentsitate jasan ezinean eragiten baitzaio"; nork nori

eragiten dion, "Herri jazarrietan eta biziraun nahi dutenetan herritarrek jasaten dute, inposaketaren doktrinaren aldeko Estatu eta boteretsuen esku", eta zer babes jasotzen duen torturatuak edota noraino senda daitezkeen zauriak.

Azkenik, otsailaren 28an, Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi auto istripuan hil zirela 20 urte beteko direla gogoratu dute. Hori dela eta, Dispertsioaren aurkako eguna antolatu dute, 25erako: omenaldia, barrikotea Xirimirin eta kontzertuak. Informazioa datozen asteetan zabalduko dute.



NEURE KABUZ
GORKA LASA

Hurrengo elurterarte

Okasiorako egoki prestatu eta mendirantz abiatu nintzen, bizitzak edo naturak oso tarteka eskaintzen digun elurretan ibiltzearen plazeraz gozatzera.

Bidezidorrean gora nindoala, non sasiak mugatzen zuen bidearen ertza eta belardiaren hasiera, txepetx bat somatu nuen. Sasiak osatzen zuen matazaren barnetik kanporakoa eginez, bere arintasunean ia dardararik ere egiten ez zuten adasketan pausatuz, jostari eta saltari. Lotsagabeki niri jarraika ibili zen txorrotxioka, berak egiten dituen dozenaka habietako batean ezkutatu zen arte, lumaz estali eta negurako goxoki egokitzen duen horretan.

Luze ibili ondoren, bidea alde batera utzi, eta elur aratzean nire oinek elur hauts zuria zanpatzen zuteneko hots hauskorrari adi eta atzean uzten nituen arrastoei so, non agertzen den azeri bat. Hura ere elurraren plazerean zorutzen edo, ez zen nire presentziak ohartu, eta hanka puntetan bezala, elur hotza ahalik eta gutxien zapaldu nahirik bezala ibili zen denbora tarte labur batez, hara eta hona, nigandik ez oso urrun. Bat-batean nitaz jabetu eta korrika presaka ihesi joan zen, orduan ere elur arrastoa doi-doi utziz. Arrasto horiei jarraiki, ahaltz eta sahatz batzuen arteraino heldu nintzen, non zulo bat ikusi zitekeen ingurua aztarkatuta zuelarik, huraxe zuen bizileku.

Herrirantz nentorrela jada, Etxeberri izeneko etxebizitza baten ondotik pasa nintzen, zeinak salgai dagoenaren kartel bat duen kanpoaldean. Imajina dezaket zein ilusioarekin eraikiko zuten, etxe berri bat, amets berri, bizitza berri... Orain hutsik eta salgai, ordea. Zer gertatuko ote zen erabaki hori hartzeko?

Etxegabeak ugaltu egin omen dira, arrazoi bat hala beste, kategorrian daudenak gero eta gehiago dira. Donostian ehun pertsonatik gorak egiten omen dute lo kalean. Etxebizitza izatea eskubide bat izan arren, askok ezin dute etxe baten jabe izan, ezta alokairurik ordaindu ere eta aterpetxera jotzen dute neguko gau luze eta hotzetan. Pandemia aurretik baino etxe turistiko gehiago eskaintzen omen da Donostian, eta 66 oheko aterpetxea besterik ez.

Beti bezala, orain ere bide okerretik eta galduta gabiltza. Txepetxa eta azeria beroien kabi eta zuloan ederki moldatzen diren bitartean, guk bertakoak kale gorrian uzten ditugu kanpotik datozen turistek dirutza baten truke etxea eskainiz.

GORKA LASA | ASIER ODRIUZOLA | GORKA ALVAREZ
JEXUX ARTETXE | MAITANE REBE | JULEN BASTERRA
LIERNI REKONDO | AIZPEA AMAS

Egin TXOTX herrian!

OTEGI

TOLARE SAGARDOTEGIA

Larunbatean irekiko dugu!
(otsailaren 4an)

txahal-saiheskia ere badugu!

Igande gauak, astelehenak eta astearteak itxita
Asteazken zehar bazkari eta afariak erreserbarekin (6 lagun gutxienez).

ERRESERBAK: 943-36 50 29 / 654 80 61 63 · Solla-Enea Baserria, Zabaleta auzoa 20160 LASARTE-ORIA



Ezker-eskuin: Miren Cuervo, Jordina Arnau, Julene Illarramendi eta Olatz Mercader, saria jaso berrian. DANI BLANCO

Izan Iñurri egitasmoak Argia Saria irabazi du

Zenbait egitasmo eta norbanakori aitortza egin die 'Argia' aldizkariak. Usurbilgo Atxega jauregian egin dute ekitaldia. Julene Illarramendi eta Miren Cuervo herritarrek sortutako Izan Iñurri entzunezkoen kategoriakoa irabazi du, '(Min)bizi' podcastagatik

Txintxarri

Izan Iñurri egitasmoak irabazi du aurtengo euskarazko komunikazioaren Argia sarietako bat, *(Min)bizi* podcastagatik. "Feminismotik eta elkartasunetik, deserosoak diren tabuei naturaltasunez heltzen dietelako eman diegu saria", arrazoitu dute antolatzaileek. Aintzatespen horien 34. aldia ospatzeko, Usurbilgo Atxega jauregia hautatu dute, pandemiaren aurretik egin bezala. "Bi urtez distantzian banatu ostean, pozgarria izan da lantaldearentzat berriro elkartzea". Entzunezkoen kategoriako aitortza hori Julene Illarramendi, Miren Cuervo (Izan Iñurriren sortzaileak dira bi lasarteoriatar horiek),

Jordina Arnau eta Olatz Mercaderrek jaso dute.

Minbiziarekin ere, "bizirik"

Saria jaso eta gero, *Argia*-ren galderei erantzun diete Izan Iñurriko lau kide horiek. Pozarren hitz egin du Cuerdok: "Ez genuen espero, uste dut bihotza atera egingo zaigula".

Mercaderrek azaldu du podcast hori zertan den: "Minbizi duzunean, badirudi dena dela beltza, dena errukia... Gaixotasun horrekin ere, bizirik gaude, hizki guztiekin: errealitate hori azaleratu nahi dugu ahots desberdinen bidez". Illarramendik mezu argi bat bidali du: "[Izan] Iñurri ibilbide oso luzea du aurretik".

2023ko Argia sariak

- **Ikus-entzunezkoa:** Karpeta Urdinak dokumentala.
- **Entzunezkoa:** (Min)bizi podcasta.
- **Prensa:** Zugazart komiki tira.
- **Internet:** Euskal Mastodon komunitatea.
- **Kanpaina:** Azterketak Euskaraz kolektiboa.
- **Merezimenduzkoa:** Oihana Goirieta, senar duen Pablo Gonzalez kazetariaren kartzelaratzea salatzeako asmoz, bere auzia zabaltzeagatik.



Bizipoza elkarteak, Hernaniko aurkezpen ekitaldian. KRONIKA

Auzolana eta bizipoza, mundu berri bat marrazteko giltzak

'Mundu berri bat guztiontzat' egitasmoaren hirugarren lana argitaratu du Bizipoza elkarteak, CD-DVD formatuan

Txintxarri

Bizipoza elkarteak *Mundu berri bat guztiontzat* egitasmoaren hirugarren alea sorta aurkeztu du, Hernanin. Bilduma bat argitaratu dute CD eta DVD formatuetan, eta momentuz behintzat, azkena izango da: 11 elkarteren hamabina abesti eta bideoklip jaso dituzte. Izan Iñurri-rena da horietako bat, Julene Illarramendi eta Miren Cuervo herritarrek sortutako egitasmoarena. *(Min)bizi* izena du haien jarduna kontatzen duen abestiak; Oihana Iguaranenak dira hitzak, eta doinuak, Idoia Asurmendirenak. Bideoklipa hilaren 6an argitaratuko dute, astelehenarekin.

Aurkezpen ekitaldi horretara bertaratu dira Bizipozako kide diren eragileetako ordezkari ugari (orotara, 36 elkarte dira) eta proiektuaren babesleak,

besteak beste. Joxe Mari Agirretxek eta Amaia Elizondok aurkeztu dute. Bizipozaren koordinatzaile Leire Elizegi herritarrek adierazi duenez, hirugarren argitalpena izango da bilduma horretako azkena, "oraingoz behintzat". Proiektu horretan kolaboratu duten eragile, sortzaile eta musikari guztiei eskerrak eman dizkie.

Hamabina abesti eta bideoklip

Esan bezala, hirugarren lanean 11 elkarteren egunerokoa nolako den gizarteratu dute, musika eta irudien bitartez. Hamabina abesti eta bideoklip egin dituzte; Bizipoza bere YouTube kanalean argitaratzen ari da, egunez egun. Azkena, *Bizipoza auzolan* izenekoa, parte hartzaile guztien artean prestatu dute; Euskal Herriko hamahiru idazle eta bertsolarik sortu dituzte letrak eta 22 musikaririk abestu.

Sarrerak salgai jarri dituzte

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak bertso bazkari literarioa egingo du hilaren 11n, Xirimiri elkarteak, 14:00etatik aurrera. Ezagutarazi du sarrerak Ilargi eta Tiburtzio Artizar tabernetan salgai jarri dituela, 25 eurotan (langabeentzat, 20 euro).

Ane Labaka eta Alaia Martin ariko dira bertsotan; Uxue Alberdik jarriko dizkie gaiak, eta Iban Urizar musikariak girotuko du ekitaldia.



TXINTXARRI

Solaskiderako Bidelagun bila ari da Ttakun KE

Ttakun Kultur Elkarteak jakinarazi du Bidelagunak behar dituela Solaskide egitasmorako, hau da, euskaraz aritzeko urratsak egiten ari direnei (Bidelariak) lagunduko dieten pertsonak. Izena eman nahi dutenek kultura@ttakun.eus helbide elektronikora idatzi edo 695 78 53 89 telefono zenbakira deitu behar dute.

40 Minutu Rock jaialdira joateko autobusa izango dute

Eskualdeko Ernai-k jakinarazi du autobus bat antolatu dutela hilaren 25eko 40 Minutu Rock elkartasun jaialdira joateko. Interesa duten herritarrek Ilargi tabernara joan behar dute izena ematera, hilaren 14a baino lehen. Txartelek 13 euro balio dute eta Bizum bidez ordaindu beharko dituzte, 620 62 75 53 telefono zenbakira mezua bidalita.


Urtez urte, XV.era iritsi da Itsaspeko Zinema Zikloa

Datorren astelehenean, hilaren 6an hasiko da aurtengo CIMASUB Itsaspeko Zinema Zikloa. Real Sociedad taldeko itsaspeko sailak, Lasarte-Oriako Udalak eta Danok Kide elkarteak antolatuta dute aurtengoa ere, ohi bezala elkarlanean

Txintxarri

Sei film labur eta lau dokumental erakutsiko dituzte aurtengo CIMASUB Itsaspeko Zinema Zikloan. Hiru astelehenez bertaratu ahal izango dira lasarteoriatarak ikus-entzuzkoen gozatzerak, kultur etxera. Hilaren 6an, 13an eta 20an proiektatuko dituzte, guztiak ordutegi berean, 19:00etan. Sarrera doakoa izango da, ohi bezala.

Gizakiaren biziraupen etorkizunerako ezinbestekoak diren pentsaera eta ohitura aldatzeko martxan jartzeko "etsipen deiadar gisako" lema batek izendatua dator aurtengo zikloa: *Orain edo inoiz ez*. Horri



Itsaspeko Zinema Zikloaren antolatzaileak, aurtengoaren aurkezpenean. TXINTXARRI

erreferentzia eginez, David Sanchez Carretero Real Sociedad taldeko itsaspeko saileko ordezkariek honako adierazpenok egin ditu: "Denbora jada gure kontra daukagunean, gure ozeanoen egoera erreala ezagutarazteko helburuarekin eta hondaleak ezkutatzeko dituen altxorak ahaztu gabe, hauek kaltetzen dituzten arazoak azaleratu nahi dira".

Hamargarren Txikizikloa

Etxeko txikiak "errespetuzko eta maitasuneko begirada batekin hezi daitezten", itsasoa ezagutu eta itsaspeko munduaz jabetu behar direla uste dute antolatzaileek; helburu horrekin abiatu zuten, duela hamar urte, Txikizikloa. Nabarmendu dute, gainera, pixkanaka gero eta ikastetxe gehiagotara zabalduz joan den egitasmoa dela: "Hezkuntza eta hedapena dira gure itsasoak bizirik mantendu eta gu guztion etorkizuna bermatzeko tresnarik indartsuenak". Saio horiek ere kultur etxean egingo dituzte. Otsailaren 6an izango dira, 10:00etan, eta Lehen Hezkuntzako

5. eta 6. mailako ikasleek izango dute bertaratzeko aukera.

Argazki erakusketa ere bai

Ez du hutsik egingo aurtengo edizioan ere. Otsailaren 6tik 24ra izango dute herritarrek hori bisitatzeko aukera, kultur etxeko kafetegian eta honako ordutegian: 17:00etatik 21:00etara.

Irudi horiek erakutsiko dituzte mundu osoko hainbat itsaspetan bizi diren espezie "harrigarri eta erakargarrienak", baina horrekin batera, itsas hondoko edertasuna eta gizakiaren "bidgabekeria" ere erakutsiko dute.

Mundu osoko parte hartzaileek aurkeztu dituzte euren irudiak aurtengo edizioan. Ia 300 irudi jaso dituztela ohartarazi du Sanchezek, eta kontatu, horietatik 24 onenak aukeratu dituztela erakusketa osatzeko.

Informazio gehiagorako honako helbide hau kontsulta daiteke: <https://ciclo.subacuaticasrealsociedad.com/>

Otsaileko kultur agendaren barruan aurkeztu du udalak zikloa, eta hitzordu bera baliatu du hil honetan izango diren gainerako jarduerak iragartzeko.

ORIENTE BHI

BI ERAIKIN, INSTITUTU BAT!

DBH-ko IKASLEEN ONARPENA 23-24
OTSAILAREN 13-tik 24-ra



Landaberri eraikina DBH 1-2
Pintore 2,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 94



Larrekoetxe eraikina DBH 3-4 eta Batxilergoa
Buenos Aires aldapa 1,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 92



www.orienteeus

ATE IREKIAK

otsailaren 8an (17:30-18:30)
Landaberri eraikinean

12-18 urte
DBH-Batxilergoa
Jangela zerbitzua
Euskal kultura eta
aniztasuna bultzatuz

Maddi Zaldua

14 urterekin ezin, eta adin nagusitasunera heldu bezain laster bete du Aroa Sancho Palomares (Lasarte-Oria, 2005) txikitatik datorkion nahia. Urtarrilaren 27an, ostiralarekin Bilbon ospatutako Miss Grand Euskadi txapelketan parte hartu zuen, eta irabazle izatea lortu ez badu ere, pasarela onenaren zinta jantzita itzuli da etxera. "Oso pozik" dago emandako lehen urratsekin, eta etorkizunari begira jarrita, bide beretik jarraitzeko asmoa agertu du. Lehen esperientziaren berri emateko elkartu da TXINTXARRI-rekin.

Nola hasi zinen edertasunaren munduan?

Txikitatik izan dut gustuko argazkigintzaren mundua; asko erakarri izan nau, ume nintzenetik. 14 urterekin hasi nintzen esparru horretan lan egiten duten agentziak bilatzen, eta bide horretan topatu nuen Miss Grand Euskadiren kontua. Beraiekin harremanetan jarri nintzen, baina une hartan atzera bota ninduten adinagatik, 18 urte izatea ezinbesteko baldintza baita. Adin nagusitasunera heltzean berriz ere eurekin kontaktuan jartzeko esan zidaten, eta halaxe egin dut.

Miss Grand Euskadi bezalako lehiaketa batean parte hartu duzun lehen aldia izan da?

Baietz esan dezaket. Haurra nintzela garai batean *Teledonosti* eta *El Diario Vasco* komunikabideek antolatutako *Ojos Bonitos* lehiaketan parte hartzea eraman ninduten gurasoek, eta Urbil merkatalgunearen antzeko egitasmo batean ere parte hartu genuen, familiar. Baina Miss Grand Euskadi bezalako txapelketa batean parte hartu dudana lehen aldia izan da.

14 urterekin ezin, eta 18rekin parte hartu duzu. Aukera noiz helduko zain egon zara orain arte?

Bai. 18 urte bete eta Miss Grand Euskadiren udako castingean eman nuen izena. Iazko abuztu amaieran egin nuen proba. **Zein helbururekin eman zenuen izena?** Edertasunaren munduan murgiltzeko xedez erabaki nuen pausoa ematea. Aurrez esan dudana bezala, txikitatik nahi izan dut horretan aritu eta uste dut lehen urratsak ematea garrantzitsua dela bidean aurrera egin ahal izateko.

Aipatu nahi dut nire garapen pertsonalerako ere oso lagungarri

"Nire garapen pertsonalerako lagungarria izan da esperientzia"

AROA SANCHO PALOMARES MISS GRAND EUSKADI LEHIAKETAKO PARTE HARTZAILEA Bilbon ospatu den Miss Grand Euskadi edertasun lehiaketako partaide izan da, eta pasarela onenaren garaikurra eskuratuta itzuli da etxera. Esperientziaren berri eman du



Edertasunaren munduan lehen urratsak ematen ari da herritarra. AROA SANCHO

izan zaidala esperientzia hau. Pertsona zalantzia izan naiz orain arte, baina bide honek asko lagundu dit hori gaintzen; prozesuak, hasiera-hasieratik, asko lagundu dit nire buruarekiko konfiantza hobetzen. Hori hala izanik, tristura eragin dit hau guztia amaitu izanak, baina, aldi berean oso pozik nago bizitako guztiarekin.

Prestakuntza lanik egin al duzu Miss Grand Euskadi lehiaketako galan aritu aurretik?

Bai. Hiruzpalau orduko entseguak egin ditugu, asteburuetan;

batzuetan Donostian, eta beste zenbaitetan Bilbon.

Eta zer landu duzue saio horietan?

Bereziki pasarela eta koreografia entseatzeko aritu gara, horiek baitira lehiaketari dagokionean aspektu garrantzitsuenak. Horrekin batera, bi hitzaldi jaso ditugu, oratoriaren ingurukoa bat, eta hegaldi laguntzailea izateko bestea. Lehena garrantzitsua da, horri esker eskuratu baititugu jariozuzen hitz egiteko erremintak.

Nola egin dute txapelketan aritu zaretenon aukeraketa?

Lehenengo pausua castinga egitea da. Miss Grand Euskadik hiru egin zituen, eta udako deialdian parte hartu nuen nik. Euskadi eta Cantabria artean, oker ez banago 150 parte hartzailek eman genuen izena, eta horietatik guztietatik Euskaditik hogeia aukeratu gintuzten. Prozesu hori egin eta pare bat egunetara jaso nuen nire parte hartzea ziurtatzen zuen gutunazala.

Txapelketan aritzeko zer eskatzen zaio parte hartzaileari?

Jende askok pentsatzen du kanpo itxura baino ez dutela kontuan hartzen, baina uste dut gauzak asko aldatu direla zentzu horretan, eta beste zenbait aspektu ere baloratzen dituzte gaur egun. Partaideok egindako ahalegina eta aurrera egiteko grina ere izan dituzte kontuan lehiaketa honetan, eta diziplina eta norberaren gogoak ere bai. **Zentzu horretan aurrerapausoak eman direla uste duzu orduan.**

Bai, handiak. Fisikoa kontuan hartzen dute, noski, baina beste begirada batetik egiten dutela uste dut. Iruditzen zait, adibidez, nik duela hogeia urte parte hartu izan banu, ez nukeela prozesuan aurrera egiteko aurten izan dudana aukerarik izango. Metro bat eta 58 zentimetro neurtzen dut, eta ezaugarri horrekin atzera botako ninduten ziurrenik.

Eta nola joan da Miss Grand Euskadi lehiaketa?

Gala ostiral gauean [urtarrilak 27] izan zen, Bilbon, baina

eguerdirako lehiaketari hasiera emango zion koreografiaren entseguak egiten ari ginen. Agertokiko kokalekuak ere zehaztu genituen. Oroitzen dut urduri nengoela, baina uste baina hobeto kontrolatu nuen hori.

Bazkalostean ile apaindegi eta makillaje saioak izan genituen, eta horiek amaituta, *meet and greet*-aren txanda iritsi zen. Senideekin argazki saio bat egiteko aukera ematen du horrek, eta nik, mutil lagunarekin egin nuen. Hori amaituta, gala hasi zen. Koreografiarekin egin genuen *opening-a*, eta hori eta gero parte hartzaile bakoitzak bi pasarela egin genituen; bainujantzian lehena, eta soineko luzearekin bigarrena. Oso hunkigarria izan zen, ibilbide honen amaiera suposatzen zuelako, baina ederra aldi berean.

Ez duzu txapelketa irabazterik lortu, baina ez zara esku hutsik itzuli etxera.

Hala da, bai. Galan egin beharrekoak egin eta gero, parte hartzaile guztien artean hamar onenak jakinarazi zituzten, eta horien artean sailkatu nintzen ni. Garailea izendatzeko, hamarreko horretatik bost aukeratu zituzten gero, eta talde horretatik kanpo geratu nintzen. Bosteko horretatik izendatu zituzten finalistak gero, eta, noski garailea. Hainbat zinta ere banatu zituzten, eta pasarela onenarena jaso nuen nik. Berezia izan da hori, gure prestatzailearen eskutik jaso bainuen, eta ilusioa egin zidan horrek, uste baitut lehiaketan aritu aurreko lan guztia ere balioan jartzen duela.

Lehen esperientziaren balorazioa positiboa da orduan.

Bai, noski. Egin dudana ere oso pozik nago. Lehiaketan parte hartzeko aukera hutsa sekulakoa izan da.

Eta hemendik aurrera? Bizitakoak bide horretan jarraitzeko balio izan al du?

Miss Grand Euskadik balio izan dit etorkizunean aukera berriak etor daitezkeela sentitzeko, eta argi dut bide honetatik jarraitu nahi dudala. Orain hiru argazkilarirekin argazkiak egiteko asmoa dut, eta sare sozialen bidez nire burua ezagutarazteko ahalegina egingo dut.

'Hondamendia' antzezlanaren emanaldia egin dute herrian

Zaldibarko zabortegiko ezbeharrak eta covidaren pandemia jorratzen ditu Harkaitz Cano herritarrak idatzitako obrak

Txintxarri

2020ko otsaila. Zaldibarko zabortegiko langile batek nagusiari jakinaraziko dio pitzadurak daudela, azter ditzaten. Lankide batek, berriz, txanda aldaketa eskatu dio inauterietako entsegura joateko, eta baiezkoa emango dio. Egun horretan luizia gertatu eta bi langile zaborpean geldituko dira. Aldi berean, irratiari lan egiten duen kazetari batek ahots arazoak ditu estresaren ondorioz, eta berak ezagutzen duen kazetari erretiratu bat ebakuntza noiz egingo zain dago. Data emango diote, baina urrutiko birus batek bertan behera utziko du. Hori eta beste gauza asko.

Testuinguru horrek egoera oso bestelakoetan dauden pertsonaiei nola eragiten dien erakusten du obrak. Gertatutakoa ezkutatu nahi duten politikariak, egia azaleratu nahi duten senide, lankide eta kazetariak, hilabetetako lanaren ondoren antzezlanarekin estreinatuta ezin duen dantzaria...

Eszenarioa eta aktoreak behin eta berriro aldatzen dira antzezlanak aurrera egin ahala. Zazpi aktoreko taldea bada ere, hogeit hamar pertsonaiaren azalean jarriko dira, besteak beste, zabor luiziak eraginda hil ziren Joakin Beltran eta Alberto Sololuze langileenean. Batetik bestera salto egiten dute uneoro. Gauza bera gertatzen da une batetik aurrera arropaz beterik dagoen agertokiarekin. Orain zabor pila, orain irrati estudio, orain ospitale, auto edo etxe bilakatuko da.

Axut! eta Artedrama konpainiak ari dira *Hondamendia* oholtzaratzen, elkarlanean. Harkaitz Cano lasarteriatarrak idatzi du, eta Ximon Fuchs-ek zuzendu. Iazko urrian estreinatuta zuten ikuskizuna, Luhuson (Lapurdi), eta harrera ona izaten ari da, Canok TXINTXARRI-ri berriki emandako elkarrizketan nabarmendu legez. Apiril erdialdera arte han eta hemen egingo dituzte emanaldiak, agenda beteta baitaude.




Eszenarioa eta aktoreak etengabe aldatzen dira, emanaldiak aurrera egin ahala. TXINTXARRI

M
Mondragon
Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

“Unibertsitateak enpresekin duen harremana aipagarria da”

Ainara del Olmo Industria Antolakuntzako Ingeniaritza graduko 3. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.



-Baduzu hobby edo zaletasunik?

Ikasketak eta kirola aldi berean egiten ditut. Izan ere, Añorga futbol taldean nago.

-Zergatik aukeratu zenuen Industria Antolakuntzako Ingeniaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Zientzietako irakasgaiak gustuko nituenez, Ingeniaritza bat egitea erabaki nuen, eta gradu guztietatik antolakuntza industrialekoa izan zen gehien gustatu zitzaidana. Bestalde, ikasketak euskaraz egin nahi nituenez eta gradu hau eskaintzen zuten artean etxetik gertuena zegoena zenez, Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen. Horretaz gain, unibertsitateak euskal enpresekin duen harremanagatik ere.

-Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arteko esperientzia oso aberasgarria izan da. Lehe-

nengo urtea ikasketa arloan zaila izan zen arren, asko ikasi nuen eta urtetik urtera hobetzen joan naiz. Gainera, Erasmus programan parte hartzeko aukera izan dut eta esperientzia oso polita eta baliagarria izan dela ziurta dezaket.

-Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politeknikoa jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Jasotako ikasketa metodologia oso egokia iruditzen zait, bereziki seihileko bakoitzaren amaieran PBL izeneko proiektu bidezko lan batean aritzen garelako. Bertan, seihilekoan zehar landutako irakasgaiak modu erreal batean praktikan jartzen ditugu. Gainera, lan gehienak taldeka egiten ditugu.

-Unibertsitateak zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?

Gehiena irakasleekin dagoen harremana eta gertutasuna da.

Klaseetan erraztasun handia ematen dute zalantza guztiak argitzeko. Bestalde, unibertsitateak euskal enpresekin duen harremana ere aipatuko nuke, eta horiekin duala egiteko aukera ematen dute. Hobetzeko, campuseko instalazioak esango nuke: liburutegia eta kafetegia, adibidez.

-Dual eremuan ari zara?

Oraintxe bertan ez nago dualen, baina ikasketak lanarekin partekatzen duten nire ikaskideekin hitz egin ostean, nire asmoetako bat dualean hastea izango litzateke.

-Etorrizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Orain, Alemanian nago Erasmus egonaldian eta nire asmoa, otsailetik aurrera ikasketak lanarekin partekatzea da, etorkizunera begira oso aberasgarria izango delako uste dudalako.



Joakin Beltran eta Alberto Sololuze langileak dira protagonistetako bi. TXINTXARRI


HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
U	V	W	X	Y	Z	.	,	!	?

Zeeer?! Jarri irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta abesti ezagun baten zatia agertuko zaizu.


DOMINOAN


Dakizunez, ilargiak zikloak osatzen ditu, eta horren arabera aldatzen zaio forma, Lurretik begiratuta. Osa ezazu dominoa, forma edo fase horiek kontuan hartuta.



HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordена itzazu izar uxook handienari 1, hurrenari 2 eta txikienerari 8 zenbakia emanaz.





ILGORAKO SUDOKUA

Osa ezazu sudokua, ILGORA osatzen duten hizkiekin (I, L, G, O, R eta A). Hizki bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



HAMAika IKUSTEKO JAIOAK

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. 11 dira guztira.



Itzala

Lotu astronauta bakoitzari bere itzala.



Bi puntu balio dituen jaurtiketa librea

Ostadar SKTko Kadete Errendimendu taldeak Innova Hertz Klinika ISB garaitu du. Neurketa borrokata azken segunduan erabaki da; jaurtiketa libre bat sartu du etxeko taldeak. Bigarren fasean murgilduta, Gipuzkoako txapelketako lehia da talde urdin-beltza

Txintxarri

Ostadar Saskibaloia ataleko Kadete Errendimendu taldeak azken segunduan lortu zuen garaipena, 50-49. Urtarrilaren 28an jokatu zuten norgehiagoka, Maialen Chourraut kiroldegian, Innova Hertz Klinika ISBren aurka. Partida gogorra ikusi ahal izan zuten kiroldegira joan ziren zaletuek.

Etxeko taldea nagusi izan zen lehen minutuetan eta aurretik jartzea lortu zuen. Alabaina, neurketak aurrera egin ahala bi taldeek defentsan lan ederra egin zuten eta zaila izan zen zona barrura sartzea. Azpeitiarrek hiruko marratik saiakera egin eta asmatu zuen. Ostein, batean

eta bestean saskiratzeak egon ziren eta azken unean Ostadarrek sartutako bikoarekin, laurdena hiru puntuko aldearekin amaitu zuten kanpokoek, 13-16.

Egoera ikusirik, erasoan hasi zituzten urdin-beltzek ondorengo hamar minutuak. Sei minututan eskuratutako 13-4ko partzialari esker markagailuari kolorea aldatzea lortu zuten eta atsedendira abantailarekin iritsi ziren, 28-27.

Bigarren zatia hasi eta etxeko taldeak arazoak izan zituen erasoei amaiera emateko. Jaurtiketa libre eta talde urdin-beltzeko kideak; bost aldi izan ziren marran eta hamar

puntutik hiru bakarrik lortu zituzten. Azpeitiarrek, berriz, kanpoko jaurtiketei esker aurrea hartu zuten markagailuan eta 37-39 jarri ziren.

Azkeneko minutuak zirraragarriak izan ziren. Ostadarrek 11-4ko partziala egin eta neurketa eskuan zuela zirudien. Innovak ez zuen amore eman, ordea, eta bi hiruko sartuta neurketa berdintzea lortu zuen, amaierarako 33 segundo falta zirela.

Jarraian etxeko taldeak erasora jo zuen garaipenaren bila. Baina lehen saiakera ez zen eraginkorra izan. Baloiaren jabetza azkar batean berreskuratu eta bigarren aldiz gerturatu ziren aurkariaren



Ostadar SKTko kadetea, Azpeitiko taldeko jokalaririk batekin borrokan. TXINTXARRI

eremura. Orduan, jaurtiketa librearen marran amaitu zuten eta puntu bat lortuz markagailuan aurreratu ziren, 50-49.

Baloia berriz ere jokoan jarri arren, arerioek ez zuten denborarik izan jokaldirik egiteko. Beraz, etxean geratu ziren garaipeneko bi puntuak.

Endika Marrahi entrenatzaileak taldeak egindako lana eskertu eta jokalarien jarrera azpimarratu du: "Taldea ez du amore eman eta partida osoan sinetsi du garaipenean. Aurkari bikaina izan dugu aurrean eta edonork

irabaz zezakeen, oso kontentu nago taldearen lanarekin".

Gipuzkoako txapelketa

Ostadarreko taldeak Gipuzkoako txapelketa du jokoan. Errendimendu Zilar mailan bigarren sailkatu eta urtarrilaren 15ean hasi zuen lehia berria.

Hiru neurketatik bi irabazi dituzte kadeteek; bere multzoko hirugarren dira bigarrenarekin puntuetan berdinduta (bost puntu). Sailkapeneko lehen bi taldeek Gipuzkoako txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
Bergara KE - Ostadar SKT Larunbata. 17:00. Ipintza, Bergaran.
GORENGOEN MAILA
Ostadar SKT - Axular KKE Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.
ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA
Texas Lasartearra CF - Beti Ona CD Larunbata. 17:00. Zubieta Z5, Donostian.
Astigarragako Mundarbo B - Ostadar SKT Larunbata. 18:15. Zarkumendegi, Astigarragan.
OHOREZKO JUBENIL MAILA
Hernani B - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Zubipe, Hernanin.
JUBENIL 1. MAILA, IGOERA
Ostadar SKT B - Antigua Luberrri KE B Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.
JUBENIL 1. MAILA, KOPA
Texas Lasartearra CF - Dunboa Eguzki CD Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
Billabona KE B - Ostadar SKT C Larunbata. 16:00. Arratzain, Villabonan.
OHOREZKO KADETE MAILA
Ostadar SKT - Vasconia CD B Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.
KADETE 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT B - Trintxerpe CD B Igandea. 12:30. Michelin kirol gunean.
Kostkas KE E - Ostadar SKT C Larunbata. 11:00. Matigoxotegi, Donostian.
Sporting de Herrera - Texas Lasartearra CF Igandea. 10:15. Herrera, Donostian.
OHOREZKO INFANTIL MAILA, KOPA
Beti Ona CD - Ostadar SKT Igandea. 13:00. Beraun, Renterian.

INFANTIL TXIKI, 2. FASEA
Arrasate CD - Ostadar SKT Larunbata. 11:00. Mojategi, Arrasaten.
INFANTIL 1. MAILA
Texas Lasartearra CF - Euskalduna SD Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
Ostadar SKT B - Billabona KE B Igandea. 10:55. Michelin kirol gunean.
Billabona KE A - Ostadar SKT A Larunbata. 11:00. Arratzain, Villabonan.
INFANTIL F8
Añorga KKE A - Ostadar SKT Larunbata. 14:45. Añorga, Donostian.
ARETO-FUTBOLA
1. MAILA
Eguzki Arkupe Rehabilitaciones - TEEP Tolosala Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
2. MAILA
Makax Gorka Margoak - Eguzki ISU Leihokak Igandea. 12:30. Altza kirol., Donostian.
GAZTEEN MAILA
Eguzki Bodegas Ayesa - Antigua Luberrri KE Igandea. 11:15. Maialen Chourraut kirol.
SASKIBALOIA
SENIOR 1. MAILA
Ostadar SKT - Tecnun Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
SENIOR 3. MAILA
TAKE Coach - Ostadar SKT Larunbata. 14:00. Usabak kir., Tolosan.
JUNIOR PARTAIDETZA
Ostadar SKT B - Saski Lazkao Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

Hemen G. Eskoritza KE - Ostadar SKT A Igandea. 18:00. Manuel Muñoz kirol., Eskoriatzan.
KADETE ERRENDIMENDUA
Zast Kuraye ZKE - Ostadar SKT Larunbata. 18:15. Aritzatalde kirol., Zarautzen.
KADETE PARTAIDETZA
Ostadar SKT - Aloña Mendi KE Igandea. 12:15. Zubikoai kirol., Oñatin.
INFANTIL ERREN., PROMOZIOA
Ordizia Lacturale - Ostadar SKT Larunbata. 10:45. Majori kirol., Ordizian.
INFANTIL PARTAIDETZA
Okela Maialen Añorga KKE - Ostadar SKT Beltza Igandea. 13:00. Amassorain ik., Donostian.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA
Bera Bera Bultz - Ostadar SKT Larunbata. 19:00. Pio Baroja kirol., Donostian.
EUSKAL LIGA, 2. SENIOR
Grupo Eleyco Udapa jatorkide - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Judimendi Z.Z., Gasteizen.
JUBENILA
Harresi 1 - Ostadar SKT Igandea. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
KADETEA
Ostadar SKT A - Harresi Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
Txingudi BHI - Ostadar SKT B Larunbata. 11:30. Txingudi BHI, Irunen.
INFANTILA
Aiztondo NKT - Ostadar SKT Larunbata. 10:00. Ernioeaa ik., Villabonan.

PILOTA
TRINKETA BANAKA, JUBENILAK
Intza (Diez de Gereñu) - Behar Zana (Arruti) Larunbata. 10:30. (1. partida) Ametsa trinketa, Iruran.
Intza (Olazabal) - Hernani (Manterola) Larunbata. 10:30. (2. partida) Ametsa trinketa, Iruran.
Intza (Urdanpilleta) - EPLE (Lizarazu) Larunbata. 10:30. (3. partida) Ametsa trinketa, Iruran.
Intza (Elosegui) - Hernani (Urdangarin) Larunbata. 10:30. (4. partida) Ametsa trinketa, Iruran.
UDABERRI TX., JUBENILAK 1. MAILA
Intza - Gazteleku 2 Igandea. 11:00. Michelin kirol guneko pilotal.
UDABERRI TX., JUBENILAK 2. MAILA
Ilunpe - Intza Ostirala. 19:00. (2. partida) Izarraitz, Azpeitian.
ERRENDIMENDUA, ALEBINAK 1. MAILA
Intza - Ataun Larunbata. 16:15. (2. partida) Michelin kirol guneko pilotalekuan.
ERRENDIMENDUA, ALEBINAK 2. MAILA
Intza - Gazteleku 1 Larunbata. 16:15. (1. partida) Michelin kirol guneko pilotalekuan.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
AVK Bera Bera RT - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. 16:00. Kote Olaizola, Donostian.
14 URTEZ AZPIKOA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Txingudi Baztan Igandea. 09:45. Michelin kirol gunea.

IGERIKETA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutuek Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute. Igandea. 10:00 eta 16:00. Agorrosin kirol., Arrasaten.
GIPUZKOAKO SARIA
Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutuek Gipuzkoako Sarian parte hartuko dute. Igandea. 15:30. Allurralde kirol., Andoainen.
JUDO
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
LOKEko infantil mailako judoek Gipuzkoako txapelketako 1. fasea jokatuko dute. Larunbata. 15:30. Urbeltz fr., Legazpian.
GIMNASTIKA
AMATEUR TXAPELKETA
LOKEko gimnastek Amateur txapelketari hasiera emango diote. Larunbata. Egun osoa. Labegarieta kir., Bergaran.
BENJAMIN TOPAKETA
LOKEko gimnasta gazteek topaketa izango dute. Igandea. 11:45. Hernaniko kiroldegian.
ATLETISMO
ESPAINIAKO TXAPELKETA
Ostadar SKTko Naroa Furundarena 23 urtez azpiko Espainiako txapelketan lehiatuko da. Larunbata eta igandea. Antequera, Malagan.
XAKEA
3. MAILA
Taula Xake Kluba - Billabona E Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean.

Alebinek, marka berriak eta selekzioaren deia

Buruntzaldea IKTko Itxaso Iparragirrek Udako Gipuzkoako txapelketako gutxieneko marka egin du. Iñaki Garcia, aldiz, Lurralde Federazioen arteko Eskola Adineko Alebinen CESA Espainiako Txapelketan lehiatuko da, Euskadiko selekzioarekin

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko bost igerilari Alebinen Teknikafazio sarian lehiatu ziren urtarrilaren 29an, Azpeitian. Itxaso Iparragirre, Oihan Matute, Ibon Elola, Kimetz de la Cruz eta Iñaki Garcia gazteek, marka berriak lortzeaz gain, Gipuzkoako udako txapelketarako sailkapena ere poltsikoratu du taldeak.

Buruntzaldea IKTko arduradunek azaldu dutenez, "jardunaldi hau, saria baino gehiago, denbora hartze saio batenez, gustura atera ginen gureek egindakoekin".

Igerilari bakoitzak bi proba burutu zituen banaka eta gehienek markak ontzea lortu zuten. Oihan Matute, Ibon Elola eta Iñaki Garcia, gainera, euren probetako lehen postuetan izan ziren eta Itxaso Iparragirrek laugarren amaitu zuen lau estiloko 200 m. proba.

Horrez gain, taldeko lau mutilek 4x100 m. libreko zen lau estiloko erreleboak egin zituzten eta bigarren eta hirugarren postuak eskuratu zituzten, hurrenez hurren.

Gutxieneko markak

Egindako lanari esker, Iparragirrek Udako Gipuzkoako Txapelketarako sailkapena lortu zuen banakako lau estiloetako 200 metro proban.



Alebin teknifikazio Sarian lehiatu ziren igerilariak. Garcia, erdian. BURUNTZALDEA IKT

Beste bi kidek ere bestelako txapelketako gutxienekoak gertu izan zituzten. Oihan Matuteren kasuan, Euskal Herriko txapelketako 100 m. eta 200 m. bular probetarako markak. Iñaki Garcia, aldiz, Espainiako Alebinen Txapelketarako sailkapena lortzeko zorian egon zen 100 m. librean -30 ehunekogatik ez zuen lortu- eta bizkar estiloko 100 m. eta 200 m. probetan ere gutxi falta izan zuen.

Euskadiko selekzioa

Banakako txapelketarako markarik ez egin arren, albiste pozgarri bat jaso du Garciak,

izan ere, Euskadiko Igeriketa Federazioak Lurralde Federazioen arteko Eskola Adineko Alebinen CESA Espainiako Txapelketarako deialdia argitaratu du, eta aukeratutako igerilarien artean Garcia dago. Hilaren 24tik 26ra, Oviedon, Euskadiko selekzioa ordezkatzeko du Buruntzaldea IKTko gazteak. Lau banakako probetan parte hartuko du: 100 m. libre, 100 m. eta 200 m. bizkar probak eta lau estiloetako 200 metrokoa. Eta oraindik ziurra ez den arren, errelebo ezberdinetan egotea ere espero dute.

Bien bitartean, hilaren 12an, Getxon entrenamendua izango du selekzioarkein.

Euskal Ligako taldeak, ezin bigarren itzulia ongi hasi

Udapa Jatorkide Senior taldearen aurka neurtu ditu indarrak Ostadarreko taldeak; 0-3 galdu du

Txintxarri

Euskal Ligako Ostadar Boleibola taldeak hitzordu zailei aurre egin behar izan die bigarren itzuliko lehen bi jardunaldietan. Sailkapeneko lehen postuetan dauden bi talde izan ditu aurrez

aurre eta talde urdin-beltzak gogor lan egin arren, aurkariaren esperientzia gailendu da.

Urtarrilaren 21ean Sestaon -laugarren sailkatua- eman zion hasiera Ostadarrek denboraldiko bigarren zatiari. Neurketaren

bigarren seta ederki borrokatu zuten Lasarte-Oriako taldearen jokalariek. Alabaina, joko horrek ihes egin eta 3-0 (25-16, 25-23 eta 25-13) galdu zuten norgehiagoka.

Urtarrileko azken jardunaldian, berriz, Udapa Jatorkide Senior taldearen bisita jaso zuen Maialen Chourraut kiroldegian.

Talde urdin-beltzak Ligako hirugarren sailkatuaren aurka neurtu zituen indarrak eta ezin izan zuen garaipena erdietsi. Gasteiztarrak nagusi izan ziren (13-25, 19-25 eta 15-25).



Eguzki ISU Leihoak-eko jokalaria, aurkariaren presiotik ihesi egin nahian. TXINTXARRI

Eguzki ISU Leihoak-en hutsek baldintzatu dute neurketa

Lasarte-Oriako taldeak Laskorainen aurka jokatu du. Hutsegiteei esker, tolosarrak 1-4 gailendu dira

Txintxarri

Eguzki ISU Leihoak taldeak Laskorain Keren aurka jokatu zuen. Jon Arozenaren mutilek lehen zatian egindako akatsek erabaki zuten partidaren norabidea. Tolosarrak 1-4 izan ziren garaile.

Bi taldeak gogotsu atera ziren Maialen Chourraut kiroldegiko kantxara eta partida parekatua izango zela zirudien. Alabaina, etxeok defentsan hiru hutsegite izan zituzten lehen zatian eta Laskorainek ez zuen aukerarik galdu; horietaz baliatu zen markagailuan aurrea hartzeko, 0-3.

Horren ostean, Eguzkik aurrerapauso bat eman eta erasora jo zuen. Jokoa hobetu eta lehen zatian baino aukera gehiago sortu zituen. Horietako batean, gainera, gola sartu zuen.

Laskorainek ez zuen garaipena eskuetatik joaten utzi nahi eta

ederki defendatu zuten lortutako aldea. Horrez gain, beste behin ere etxeok atea zulatzea lortu zuten (1-4), eta garaipeneko puntuak eraman zituzten Tolosara.

Garaipen bakarra

Arete futboleko denboraldia ere bigarren zatian sartu da. Gipuzkoako 2. mailako ligako taldeek hilaren 21ean jokatu zuen itzuli berriko lehen jardunaldia eta sailkapeneko azken postuan egingo dio aurre Eguzki ISU Leihoak txapelketako fase honi.

Jon Arozenaren taldeak garaipen bakarra erdietsi du aurtengo ligan. Hala ere, denboraldi hasieran prestatzaileak azaldu modura, jokalaria gazte eta berri ugari batu ziren Eguzkiren bigarren taldera eta helburu nagusia "horiei erakutsi eta hobetzen laguntzea" da.



Partidako erremate bat. TXINTXARRI

Urte gogorra izaten ari da taldearentzat emaitzei dagokionez; neurketa bakarra irabazi du. Eta sailkapeneko azken aurreko postuan dago.

Hala ere, Euskal Ligako taldearen lehen urtea izanik, mailara egokitu eta esperientzia biltzen ari dira jokalariek.

Hurrengo hitzordua Donostian izango du, hilaren 4an, Bera Bera Butz taldearen aurka. Joaneko neurketa berdindua izan zen (2-3), eta oraingoan ere lehia estua izatea aurreikusi dute.

Ostadar, talde indartsuen aurka borrokatzeko gai

Erregional Ohorezko Mailako Ostadarrek Mariñoren bisita jaso du. Urdirin-beltzek ez dute atera begira zorterik izan eta defentsa lan ona egin arren, irundarrek eraman dute saria. Jokalarien jarrera azpimarratu du taldearen entrenatzaile Leire Garciak

Txintxarri

Erregional Ohorezko Mailako Ostadar SKTk partida borrokatua jokatu zuen urtarrilaren 28an Michelin kirol gunean, Mariñoren aurka. Arerio gogorra izan zuen aurrean talde urdin-beltzak: ligako bigarren sailkatua. Leire Garcia entrenatzailearen hitzetan, "Mariño oso talde ona da, Realarekin batera txukunena, zentzu guztietan".

Alabaina, bolada txar baten ostean, talde urdin-beltzak neurketa hori inflexio puntu izatea nahi zuen. "Denok batera erabaki genuen aurrera egin nahi genuela. Borrokatzen badakigula erakutsi dugu askotan eta ikasteko gogo hori ez dugu inoiz galdu. Partida gogorra zela jakinda, aste osoko lana kontzentrazioan eta posizionamenduan oinarritu genuen", azaldu du prestatzaileak.

Hori guztia buruan, Ostadar sendo aurkeztu zen norgehiagokara eta defentsa lan handia eginez, Irungo taldeari jokatzeko oztopatu zion.

Lan horretan kontzentratuta aukera gutxi batzuk izan zituen lehen zatian Ostadarrek aurkariaren atea aurrera iristeko. Mariñok ere ez zuen arrisku handirik sortu. "Beraiek ere sufritu egin zuten momentu



Ostadar eta Mariñoko jokalaria, baloiarengatik borrokan. TXINTXARRI

askotan", gehitu du Ostadarreko Garciak. Husna joan ziren atsedendaldira.

Bigarren zatian ere, etxeko taldeak "ondo kokatuta eta kontzentrazio maila handiarekin" jarraitu zuen lanean. Alabaina, 83. minutuan, kontraeraso batean, defentsan huts bat egin zuen talde urdin-beltzak eta, hori baliatuz, Mariñok gola egin zuen.

Nahiz eta etxeko taldearentzat gola kolpe handia izan, bukaerara arte borrokatu zuen berdinketa lortu eta Mariñok aldea handitu ez zezan.

Garcia pozik dago taldeak partidaren erakutsitako jarrerarekin: "Aspaldi ez bezala komunikazio maila handia izan genuen zelaian eta denok genekien zertara nahi genuen jokatu".

Zelaian lana erakutsi

Bigarren itzuli hasi berri du Erregional Ohorezko Mailako taldeak. Azken partidetak emaitzek taldean eragin dutela nabarmendu du Garciak: "Garaipen bat behar dugula ikusten dut. Zaila da partidaz partidea puntuak galtzea eta gaitza, astean zehar egindako lana ikusita".

Horregatik, egoerari itzulia ematea du helburu talde urdin-beltzaren prestatzaileak. Mariñoren aurkako neurketan egin modura, entrenamenduetan landutako kontzeptuak neurketetan azaleratzen ahaleginduko dira. Batez ere, hobetu beharreko gauza garrantzitsu bat dutela azpimarratu du: gola. "Golarekin konektatzeko beharra dugu berriz eta motibazio gehigarri horrekin bukatu nahi ditugu partidak".

Bide horretan, lehen erronka Bergara izango da. Ostadar SKTko taldeak helburu argia izango du: "Hiru puntuak lortzea".

Hondarribia, hirugarren denboraldi aurreko lehen proban

Portugaletoko San Nicolas XI. Traineru Jaitsiera jokatu dute; Donostiarra eta Orio izan dira lehen biak

Txintxarri

Traineru denboraldia udan hasten den arren, eskifaia ezberdinak neguan hasten dira lanean, lehiaketarako prest egoteko. Bidean indarrak neurtzeko aukera dute hainbat lehiaketetan. Lehena Portugaletoko San Nikolas traineru jaitsiera izan da. Intza Fernandez herritarra kide duen Hondarribiak hirugarren postua eskuratu du.

Erlojuz kontrako probari aurre egin behar izan zieten partaideek eta mailaren arabera, 4.000 eta 5.500 metroko ibilbidea egin zuten.

Ama Guadalupekoa azken hirugarren itsasoratu zen eta ordura arteko denborarik onena egin zuen, 13.57,79.

Donostiarra eta Orio izan ziren uretan; aurtun aurkari izango ditu bi eskifaiek Euskotren Ligan. Bai donostiarrek (13.30,61), baita mirotzek (13.43,55) ere gainditu zuten hondarribiatarren marka. Ondorioz, lehen bandera Donostiara joan zen.

Gizonezko lehiaren ere izan zen herriko ordezkariarik. Hibaikaren



Hondarribiaren trainerua. HONDARRIBIA

eskifaian Gaizka Ormazabalek "gorputzari lehen estutua" eman zion.

Euren mailan zazpigarren atera ziren borroka eta hemezortzigarren postuan amaitu zuten (19.51,55).

Orion lehiatu

Donostia Arraun Lagunak eskifaia kideek, Aiora Belartietak herritarra barne, etxetik egin zuten lehiaren jarraipena.

Lan eta lan dabilta eta lehen proba honetako emaitza ikusirik, aurtengo liga ere lehiatua izango dela aurreikusi dute.

Martxoaren 11n Orioko jaitsieran parte hartuko dutela aurreratu digu lasarteoriatarrek.

Gesalaga Okelan Zarautzek berdinketa lortu du elite taldean

Ohorezko B Mailako taldeak bigarren fasea hasi du. Jon Ander Puertas herritarrek haiekin jokatzeari ekin dio

Txintxarri

Ohorezko B Mailako Gesalaga Okelan Zarautzek hasi du bigarren fasea. Espainiako Ligako iparraldeko A multzoan lehiatu du lehen itzulia Zarautzeko taldeak, eta bigarren sailkatu da. Horri esker, elite taldean dago eta iguera izango du jokoan. Berrikuntza horrez gain, taldeak kide berri bati egin dio ongietorria, Jon Ander Puertas herritarri.

Fase berriko lehen jardunaldian Santanderrera egin zuen bidaia Zarautzeko taldeak Mazabi Santander Independiente RC taldearen aurka jokatzeke eta 24na berdindu zuten.

Neurketa gogorra izan zen. Martxa hartzea kosta egin zitzaion Zarautzeko taldeari eta galtzen hasi bazen ere, alde txikiarekin amaitu zuten beltzek lehen zatia, 10-17.

Bigarrenean, Santanderrek gogor ekin zion erasoari eta 17nako berdinketa eskuratu zuen. 68. minutuan zarautzarrek lortutako entsegu eta gauzatzeari esker, aurre hartu zuen berriro. Tamalez, bi txartel hori eta kontrako zigor entseguak berriro berdindu zuen lehia, 24na. Partidak ihes egiteko aukera ere izan zen azken minutuetan, aurkariak sartu ez zuten zigor ostiko batekin.

Andatzaz gozaten

Hamaikagarrenez Irisasi BTT Hotzak akabatzen proba ospatu zen Usurbilen. 500 bat pertsonen parte hartu zuten kirol jardueran eta horietako asko herritarrek izan ziren. Neguko giroari aurre eginez, Andatza mendiaren inguruan hiru ibilbide ezberdin egin zituzten partaideek: motza (22 km. eta +600 m.), ertaina (27 km. eta +935 m.) eta luzea (35 km. eta +1.150 m.). Bideaz eta lokatzaz ederki gozatu zuten guztiak.



IRISASI BTT

Hitzordu bikoitza, denboraldia hasteko

LOKEko gimnastek Amateur eta Benjamin txapelketetako lehen saioak jokatuko dituzte hilaren 4an eta 5ean. Bakarka, binaka zein taldeka maila ezberdinetan parte hartuko dute herriko taldeko ordezkariak. Martxoan izango dute bigarren fasea

Txintxarri

Indartsu hasiko dute Lasarte-Oriako Kirol Elkartearen (LOKE) gimnastek denboraldia. Amateur txapelketako lehen fasea zein benjamin mailako topaketa izango dituzte, hilaren 4an eta 5ean. Gimnastika taldeko kideak irailatik dabilta lanean eta tapizean euren ikuskizunak erakusteko lehen hitzorduak dituzte.

Amateur mailako kideak Labegaraieta kiroldegian batuko dira hilaren 4an, larunbatarekin, egun osoko jardunaldian. Goizean senior eta jubenil mailako kideak izango dira lehian; arratsaldean, aldiz, kadete mailakoak.

Bakarka, bikoteka eta taldeka aterako dira parte hartzera LOKEko kideak (ikus ondoko koadroa) eta mailaren arabera, pilota, uztaia edo mazoekin egin beharko dute lan.

Martxoaren 18an, txapelketako bigarren fasea jokatuko dute Ibarran eta bi jardunaldietako



LOKEren denboraldi amaierako erakustaldiko irudia. TXINTXARRI

puntuaketak batuta Gipuzkoako txapelketako partaideak ezagutuko dira. Hitzordua maiatzaren 20an izango da.

Esku hutsik

Taldeko txikiek ere urteko lehen lehiaketa jokatuko dute hilaren 5ean, Hernaniko kiroldegian.

Benjamin mailako gimnastek lehen faseko saioari egingo diote aurre. LOKEko hiru talde eta bakarkako bat aurkeztuko ditu (ikus ondoko koadroa) eta guztiek esku hutsik egingo dute lan.

Horiek ere martxoan izango dute bigarren fasea, hilabete horretako 11. egunean.

Amateur txapelketa 1. fasea

Senior A maila

- **Garazi Gomez** Pilota

Senior B maila

- **Paula Martinez** Pilota
- **Yohana Reyes** Pilota (Bikotea)

Jubenil A maila

- **Mirian Prieto** Uztaia

Jubenil B maila

- **Aitana Molano** Uztaia
- **Iraia Berasarte** Uztaia (Bikotea)
- **Maria Polina** Uztaia (Bikotea)
- **LOKE** Mazoak

Kadetea A maila

- **Maitane Sarmiento** Pilota

Kadete B maila

- **Saioa Boyero** Pilota (Bikotea)
- **Ane Lopez** Pilota (Bikotea)
- **LOKE 1** Pilota
- **LOKE 2** Pilota

Benjaminen topaketa

Bakarka

- **Amets Salvador** Esku hutsik

Taldeak

- **Landaberri** Esku hutsik
- **Ekintza 1** Esku hutsik
- **Ekintza 2** Esku hutsik

Ez da Intza Kirol Elkarteko pilotarien jardunaldia izan

Bakarka zein bikoteka neurketa guztietan gailendu dira aurkariak; partida batzuk ustekabez galdu dituzte

Txintxarri

Intza Kirol Elkarteko kideek jardunaldi beltza izan zuten. Bikotekako Errendimendu eta Udaberri txapelketako neurketei aurre egin zieten Lasarte-Oriako pilotariak, etxetik kanpo. Ongi jardun ziren alebin zein jubenilen bikoteak; aurkariena izan zen garaipena, ordea. Trinkete bakarkako lehian ere emaitzak ez ziren hobeak izan.

Urtarrilaren 27an, Itxaso Iparragirre eta Oier Jauregi eskolako gaztetxoek eman zioten jardunaldiari hasiera. Lazkaon

jokatu zuten Errendimenduko norgehiagoka LAPKEren aurka. Neurketa zaila zen arren, ongi borrokatu ziren herriko ordezkariak. Tamalez jokoak ez zuten markagailuan islarik izan eta aurkariak 16-5 gailendu ziren.

Udaberri txapelketan ere, aurkari zaila izan zuten Haritza Diaz de Guereñu eta Peru Urdanpilleta jubenilek, Azkoitia. Intzako pilotariak fin jokatu zuten eta ederki egin zioten aurre Azkoitiako bikoteari. Etxekoak ez ziren atzean geratu. Lehian hutsuneak bilatu eta tantoak

amaitzeko erraztasun gehiago erakutsi zuten eta 22-5 irabazi zuten norgehiagoka.

Trinkete txapelketako jardunaldian Beñat Olazabal eta Pedro Elosegui jubenilek bakarrik izan zuten neurketa; Diaz de Guereñuk eta Urdanpilletak atsedean izan zuten. Bi partidetan garaile izatea espero bazuten ere, ez ziren aurreikuspenak bete.

Olazabalek Behar Zanako Arruti izan zuten aurrez aurre. Intzaren pilotariak ez zuten egun ona izan eta horrek baldintzatu zuten lehia; 35-14 galdu zuten.

Elosegui ere zorte bera izan zuten EPLEren Lizarazuren aurka. Partida borrokatua izango zela zirudien lehen tantoetan. Alabaina, aurkaria hobeto moldatu zen jokoan eta 35-11 gailendu zen.

Taula Xake Klubeko kideek bigarren garaipena erdietsi dute

KBI Zumaiako Cren aurka lehiatu da Lasarte-Oriako taldea. Bi neurketa gairitu eta bi berdindu ditu

Txintxarri

Lasarte-Oriako Taula Xake Klubeko kideak pausoz pauso euren helburua lortzeko lanean ari dira, bigarren mailara igotzea. Denboraldiko lehen bidaia egin zuten urtarrilaren 28an Zumaiara. Lehia gogorra espero zuten herritarrek; zumaiarrek ez zuten partidarik galdu lehen bi jardunaldietan eta bigarren postuan ziren. Alabaina, Lasarte-Oriako laukotea 3-1 gailendu zen.

Jose Ignacio Echeverria, Juan Cruz Figueras, Alejandro Sanchez

eta Juan Luis Varela osatutako laukoteak ez zuten lan erraza izan; Oscar Aizpurua, Iñaki Arrieta, Miguel Angel Aguado eta Valeria Baez izan zituzten aurkari, hurrenez hurren.


T a u l a k o k i d e e k denboraldiaurreko lanaren fruitua erakutsi zuten. Sanchez eta Varela euren partidetan nagusi izan ziren; Echeverriak eta Figuerasek, aldiz, berdinduta amaitu zituzten euren lehiak.

Garaipenari esker, sailkapeneko hirugarren postuan kokatu da herriko xake taldea.

ZORION AGURRAK



Unax ZORIONAK Unax, gaur 6 urteko betetzen dituzu, nola joaten den denbora. Ondo-ondo pasa eguna eta jarraitu guri poza eta alaitasuna ematen, muxu handi bat familiaren partetik, asko maite zaitugu.



Markel ZORIONAK Markel! Zure familiaren partez. Oso ondo pasa zure egunean eta segi horrela. Muxus.



Mari Karmen ZORIONAK lehendakari!! Ongi ospa dezazula zure eguna!! Ttakun Kultur Elkarteak kideak.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurra.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioa zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 3	LASA	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 4	GANDARIAS-URIBE	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 5	GANDARIAS-URIBE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 6	GIL	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 7	ACHA-ORBEA	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 8	URBISTONDO	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 9	GANDARIAS-URIBE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943 33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTERI AEEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINZTA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

OHARRA

Batzar Orokorra

Alboka Abesbatzak Ohiko Batzar Orokorra egingo du hilaren 9an, ostegunarekin, Mirentxuko hitzaldi aretoan. Arratsaldeko 19:30ean egingo du lehenengo deialdia, eta bigarrena, berri, 20:00etan.

Batzarrean landuko dituzten gaiak, hauek: iazko aktaren onespina, 2022ko balantze ekonomikoa, 2022ko jardueren memoria, 2023rako egitasmoak eta zuzendaritza batzordeko kargu berrien hautaketa. Galdera eta eskarien tarte bat ere izango da.

Abesbatzak bere bazkideei bilerara joateko gonbita egiten die.

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera.



Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobe. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

Eta txistua aspaldi alboratu zenuelakoan herdoilduta zaudela uste baduzu, zaude lasai. 19:00etan etor zintezke, eta gutxinaka-gutxinaka garai bateko soltura berriro hartu. Zatoz, primeran pasatuko duzu-eta!

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUA

Logela bat alokatzen dut emakume batentzat, etxebizitza partekatuta batean, Lasarte-Oria erdialdean. Giro lasaia. Harremanetarako zenbakia, 666 32 05 20.

LANA

ESKARIA

Lan bila nabil egun osoz edo orduka (egunez zein gauez). Erietxeetan ere zaintza lanak egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 624 63 06 99.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan

zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68. Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12€ (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20€ (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

Lan bila nabil interna edo orduka. Adineko pertsonak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Paperak behar bezala ditut eta eskarmentua. Harremanetarako zenbakia: 648 90 67 82. Kurtsoan zehar haurrak arratsalde zaintzeko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia, 695 18 41 79.

Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79. Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketari. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

SALEROSKETA

SALDU

Su egurra saltzen da (haritza), tximimirako, ekonomikarako... Harremanetarako zenbakia: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsalde. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.



www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julien Basterra,
Lierne Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:
Lide Hidalgo, Uxue Odriozola,
Julene Iraola, Egoitz Epelde,
Endika Merchan, Gorka Morales,
Sergio Hernandez, Ander Hazas
eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 3

LASARTE-ORIA Txapelketa

Euskal Herriko XIV. Mus Txapelketako kanporaketa jokatuko dute. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeagatik. Jokatzen hasi baino ordu erdi lehenago joan beharko dute Xirimiri elkartera, 21:30ean.

Xirimiri elkartera, 22:00etan.

LARUNBATA 4

LASARTE-ORIA Santa Ageda

Zabaleta Auzolan elkarteak antolatuta, auzotarrak santa eskean aterako dira. Bukatu eta gero Otegi sagardotegian bazkalduko dute. Basotxo plaza, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Santa Ageda

Erketz Euskal Dantza Taldea herriko erdigunean eta baserrietan barrena ibiliko da oles egiten. Oriamendi plazan jarri dute hitzordua, 17:00etan.

Oriamendi plaza, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Santa Ageda

Xumela koruko kideak eta herriko txistulariak santa eskean ibiliko dira erdigunean zehar. Sagardotegi kaletik aterako dira, 18:00etan. Sagardotegi kalea, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Redada familiar antzezlanaren emanaldia egingo dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan nahiz Kutxabank Sarrerek atarian eros daitezke. Kultur etxea, 20:00etan.



LASARTE-ORIA Santa Ageda bezpera. Lasarte-Oriako zenbait eragile oles egitera aterako dira bihar, hilak 4, kaleetan eta baserrietan barrena. Zabaletako auzotarrak, esate baterako, Basotxo plazan elkartuko dira 11:00etan, eta bazkalordura arte ariko dira. Erketz EDTko kideak, berriz, Oriamendi plazatik aterako dira, 17:00etan. Azkenik, Xumela koruko lagunak eta herriko txistulariak Sagardotegi kaletik irtengo dira, 18:00etan. Herrian barrena, goiz eta arratsalde.

IGANDEA 5

LASARTE-ORIA Zinema

Inspector Sun y la maldición de la viuda negra filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan zein Kutxabank Sarrerek atarian eros ditzakete herritarrek. Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Al descubierto filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxean nahiz sarean eros daitezke. Kultur etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 6

LASARTE-ORIA Erakusketa

CIMASUB Itsaspeko Zinema Zikloaren XV. aldiaren barruan, argazki erakusketa bat prestatu dute. Sarrera, doan. Kultur etxeko kafetegia, 17:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Zinema

CIMASUB Itsaspeko Zinema Zikloaren XV. aldira ekarri dituzten ikus-entzuzkoen lehen sorta proiektatuko dute. Ordu eta erdiko saioa izango da. Sarrera, doan. Kultur etxea, 19:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKIJONA

'Inspector Sun y la maldición de la viuda negra' Igandea 5 17:00.

'Al descubierto' Igandea 5 19:30.

ANDOAIN

BASTERO

'The Amazing Maurice' Larunbata 4 17:00.

Igandea 5 17:00.

'Lobo feroz' Larunbata 4 19:30, 22:00.

Igandea 5 19:30.

HERNANI

BITERI

'El cuarto pasajero' Hilaren 3tik 6ra 22:30.

'Snow queen' Hilak 4 eta 5 16:30.

USURBIL

URBIL

'Avatar: el sentido del agua' Ostirala 3 16:00 (3D), 18:00, 20:00 (3D), 21:00 (3D).

Larunbata 4 16:00 (3D), 18:00, 20:00 (3D), 21:00 (3D).

Igandea 5 16:00 (3D), 18:00, 20:00 (3D), 21:00 (3D).

20:00 (3D), 21:00 (3D).

'Babylon' Ostirala 3 21:05.

Larunbata 4 21:05.

Igandea 5 21:05.

'Knock at the cabin' Ostirala 3 17:00, 19:30, 22:00.

Larunbata 4 17:00, 19:30, 22:00.

Igandea 5 17:00, 19:30, 22:00.

'M3GAN' Ostirala 3 20:20, 22:45.

Larunbata 4 20:20, 22:45.

Igandea 5 20:20, 22:45.

'The banshees of Inisherin' Ostirala 3

15:45, 18:30, 22:00.

Larunbata 4 15:45, 18:30, 22:00.

Igandea 5 15:45, 18:30, 22:00.

'Puss in boots: the last wish' Ostirala 3

15:55, 18:30.

Larunbata 4 15:55, 18:30.

Igandea 5 15:55, 18:30.

ASTEAZKENA 8

LASARTE-ORIA Opera

Mayerling ikuskizunaren emanaldi digitala aurrera eramango dute. Sarrerek 7,5 eta 9 euro artean balio dute, eta kultur etxeko leihatilan nahiz Kutxabank Sarrerek atarian eros ditzakete herritarrek. Kultur etxea, 19:00etan.

OSTIRALA 10

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak hilabeteko aurreneko proiektzioa egingo du: *Manticora* filma emango du. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan nahiz sarean eros ditzakete herritarrek. Kultur etxea, 22:00etan.

LARUNBATA 11

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatuta, herriak Euskal Inauteriak ospatuko ditu. Pandemiaren aurreko formatua berreskuratuko duela azpimarratu dute antolatzaileek. Gauzak horrela, hauxe da hilaren 11rako prestatu duten egitaraua:

16:30ean, ekitaldia Zubietako plazan. Ondoren, kalejira Lasarte-Oriarantz.

17:30ean, kalejira herrian barrena. Geldialdiak: Hipodromo etorbidea, Tajamar biribilgunea, Kale Nagusia, Largoenea kaleko biribilgunea, Okendo plaza.

19:00etan, senidetzea, dantza eta suaren ekitaldia. Zubieta, 16:30etik aurrera.

TXANTXO JANTZIEN TAILERRA

Badatoz Euskal Inauteriak! Txantxoz jantzera animatu nahi zaituztegu. Jantzia ez duzuenontzat, heldu zein umeei zuzendutako **TAILERRA** antolatu dugu.

- **Noiz:** Otsailaren 8an, 17:30ean.
- **Non:** Anbulategiko eraikineko 2.pisua.

Eraman beharrekoa:
Lastozko txanoa eta etxean dituzuen oihal zaharrak.

Informazioa eta izen-ematea:

Ttakuneko bulegoan | kultura@ttakun.eus | 943-37 14 48 zenbakian | whatsapp: 695785389



SASOETA ZUMABURU IKASTETXEA

MATRIKULAZIO EPEA
Otsailaren 13tik 24ra

- 2 urtekoentzat egokitapena: bi astekoa eta siesta zerbitzua.
- Euskara ahora proiektua: irratia, aldizkari digitala eta podcastak.
- Piktoidazketa proiektua: 3 hizkuntza batera integratuak.
- Innovamat proiektua: Matematika manipulatioa.
- Ingelesa: 4 urtetik aurrera.
- Sare hezkuntza: kompetentzia digitala lantzen.
- Liburutegi eta mediateka zerbitzuak.
- Goiz txoko zerbitzua.
- Jangela zerbitzua.
- Garraio zerbitzua.
- Eskola orduz kanpoko jarduerak.

Eskolako
telefonoa

943361226

• ATE IREKIAK •

Otsailak 11 (11:00-13:00) ZUMABURU

BILERA INFORMATIBOA

Otsailak 15 (17:00) ZUMABURU

+ info

sasoeta-zumaburu.eus

